



## GASTEIZKO AUTOBUS GELTOKIA USTIATZEKO BARNE ARAUDIA

### I. KAPITULUA

#### ***Autobus geltokia***

**1. artikulua.-** Araudi honetan eta garraioei buruzko legedian jasota dauden araei jarraiki ustiatuko da Gasteizko autobus geltokia. Hain zuzen ere, Gasteizko Udalak ustiatuko du, zuzeneko kudeaketaren bitartez.

Autobus geltokiko hizkuntza ofizialak:

Autobus geltokiko jardunean, euskara eta gaztelania herritarrei zerbitzu emateko, administrazio publikoekin harremanak izateko eta lanerako hizkuntzak dira. Arauz ezarritako hizkuntza irizpideak beteko dira une oro.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten langileei beren lana bi hizkuntza ofizialetan egiteko gaitasuna aitortzen zaie, eta beren zereginak hizkuntzetako batean zein bestean beteko dituzte.

Autobus geltokiko zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrei aukera emango zaie bi hizkuntzetako edozein baliatzeko.

Publikoari oro har zuzentzen zaizkion komunikazio guztiak, modua edo bitartekoa edozein delarik, euskaraz ala gaztelaniaz egin beharko dira.

Geltokiko kudeaketa, informazio eta arreta oro euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da, Gasteizko Udaleko hizkuntza ofizialak diren aldetik, eta Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legean zein Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean xedatutakoari jarraituko zaio.

**2. artikulua.-** Erabilera orokorreko bidaiari-garraioako linea erregular iraunkorretako autobusen irteerak, etorrerak eta igaroaldiak —geldialdia egiten dutelarik— bertan biltzea du xede geltokiak.

Geltokia erabiltzea nahitaezkoa da hirian hiriarteko zerbitzuak eskaintzen dituzten eta garraioen alorrean eskumena duen administrazio-organo eskudunak hala adierazten duen ibilgailu guztientzat, Lehorreko garraioak antolatzeari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen 131. artikulua 1. eta 2. puntuetan, Lehorreko garraioak antolatzeari buruzko Legearen araudia onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 75. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 18ko Errepideko bidaiari garraioaren 4/2004 Legearen 47. artikuluan eta Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onartzen duen 51/2012 Dekretuaren 65.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Geltokiaz gain beste leku batzuetan ere geldialdiak egiteko baimena eman ahal izango die administrazio eskudunak hiriarteko erabilera orokorreko zerbitzu erregularren emakidadunei, baina horrek ez du ekarriko berekin, inolaz ere, geltokiko zerbitzuak erabiltzeari dagozkion tarifak ez ordaintzea.

Era berean, geltokiko instalazioak eskas gertatuz gero, zenbait zerbitzu salbuetsi egin ahalko dira bertan geldituzetik, administrazio eskudunaren ebazpen arrazoitua bitarteko, horretarako ezarritako arauzko

prozeduraren ildotik.

**3. artikulua.-** Geltokiaren edukierak aukera ematen duelarik, beste zerbitzu erregular, berezi, turistiko edo pribatu osagarri batzuek ere erabili ahal izango dute, adierazten diren berariazko kasuetan eta honako lehentasun-ordena honetan:

1.- Araudi honen arabera geltokia erabiltzera behartuta dauden bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularren emakidadunen bidaien gehikuntzaren ondorioz baimentzen direnak.

2.- Araudi hau indarrean jarri ondoren esleitzen diren emakida berrien zerbitzuak.

3.- Geltokian sartzetik salbuetsita egon arren hala eskatzen duten garraio zerbitzu erregularrak.

4.- Dena delako aldi baterako erabilera berezi edo erregularreko garraio baimena duten bidaiari garraio zerbitzu bereziak.

5.- Garraio publiko berezi edo turistikoko baimenen babesean ematen diren gainerako zerbitzuak, baita garraio pribatuak ere.

**4. artikulua.-** Gasteizko udalbatzak onartzen dituen tarifak kobratuko dira geltokiko zerbitzuengatik —arrazoiak behar bezala justifikatzen direlarik, tarifa horiek berrikusterik izango da—.

## II. KAPITULUA.

### *Ustiapena*

**5. artikulua.-** Autobus bat aparkalekuko kai-barrenera iristen delarik, bidaiariz, ekipajez eta enkarguz hustu beste helbururik gabe, gehienez ere hamar minutuan egin beharko du hori, eta beste bost minutu emango dira ibilgailua kai-barrenera kentzeko, 6. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Irteera-ordua baino hamabost minutu lehenago jarri beharko dira autobusak irteera-nasan, salbu eta ezinbesteko arrazoiengatik ezinezko bada, edo gertuko edo maiztasun handiko zerbitzuak badira. Bidaia bateko ibilgailuen kopurua handituz gero —ordutegia aldatu gabe—, guztiak denbora bera izango dute aparkatuta egoteko, baldin eta bolumen handiagoaren ondorio diren premiek hala eskatzen badute eta geltokiak horretarako ahalmena badu.

Aurreko paragrafoetan adierazitako denbora gainditzen delarik, indarrean dauden tarifen arabera fakturatuko da soberako aparkaldia.

**6. artikulua.-** Nahiz eta aurreko artikuluan finkatutako ibilgailuen sarrera eta irteera denborak arauzkoak izan, aparkaldia luzatzea baimendu ahal izango du geltokiko administrazioak, edo hura murriztu, arrazoi justifikatuak izanez gero edo trafikoko intentsitateak aukera eman edo hala eskatuz gero, eta gainerako zerbitzuak atzeratzen edo zirkulazioa oztopatzen ez bada.

**7. artikulua.-** Geltokiko administrazioak adierazten dituen lekuetatik eta ematen dituen arauak jarraiki sartu beharko dira autobusak geltokira, eta bertatik irten, araudi honetan eta hiriko trafikoa antolatzeko udal ordenantza eta bandoetan xedatzen denaren ildotik.

Nolanahi ere, debekatuta egongo da:

- Kai-barreanean dagoen eta hustu eta kargatzen ari den ibilgailu baten atzean geratzea.

- Leku ezegoki edo baimendu gabeetan aparkatzea, bereziki autobus geltokiko lanetarako funtsezko diren lekuetan.
- Matxuratutako ibilgailuak berehalakoan ez erretiratzea. Ibilgailuak konpondu eta erretiratzeko sistema egokia eduki beharko dute enpresek; bestela, edo berandutuz gero, autobus geltokiko administrazioak ibilgailua erretiratzeko neurriak hartu ahal izango ditu, kostuak bidaia-antolatzailearen kontura.
- Horretarako baimendutako kai-barrenetatik kanpo hartu edo uztea bidaiariak.
- Autobus geltokiaren garbitasunaren, segurtasunaren nahiz osotasunaren kontra jotzea.
- Gizalege-arauak eta instalazioen erabilera onaren arauak ez betetzea.
- Programatutako garraio-zerbitzuak aldeztu aurretik geltokiko administrazioari jakinarazi gabe aldatzea. Baimendutako zerbitzuak aldatu edo berriak ezartzekotan, gutxienez zazpi egun lehenago jakinarazi beharko dute zirkunstantzia hori garraio-konpainiek, behar diren neurriak hartzerik izan dadin, kai-barrenak esleitzeari eta behar diren iragarpen publikoak egiteari dagokionez.

**8. artikulua.-** Bidaia amaitu ondoren atzera kargatu gabe geltokitik ateratzen diren autobusek —salbu eta iragaitzak, geltokian bidaiari ekiteko sartzen direnak— ezingo dute eraman bidaiaririk, ekipajerik edo enkargurik, enpresako langileak izan ezik, eta hori lineen emakidadun diren enpresen eta ez besteren erantzukizunpean.

**9. artikulua.-** Autobusak geltokian sartzeari, bertatik ateratzeari nahiz bertan egoteari dagozkienetan, baita maniobrei, kai-aldaketei eta besteri dagozkienetan ere, geltokiko administrazioak agintzen dituenak bete beharko dituzte enpresek, araudi honetan eta hiriko trafikoa antolatzeko udal ordenantza eta bandoetan xedatzen denaren ildotik.

**10. artikulua.-** Albait estuen zaindu beharko dute puntualtasuna enpresek, ibilgailuak geltokian sartu eta bertatik ateratzean, araudi honen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren ildotik. Gertatzen diren aparteko atzerapenen edo ordutegi-urraketan berri emango dio geltokiko administrazioak garraio-administrazio eskudunari, eragin dituzten arrazoiak adierazten dituelarik.

Zerbitzuen ustiapenaren aldakuntza oro kasuan kasu dagokion garraio-agintaritzak baimendu beharko du, eta geltokiko administrazioari jakinarazi beharko diote emakidadunek, Lehorreko Garraioak Antolatzeko Araudiaren 81.5 eta 82. artikuluetan eta Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onartu zeneko Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuaren 32.2 eta 33. artikuluetan xedatutakoaren arabera jendaurrean iragartzea nahitaezkoa dena baino gutxienez zazpi lanegun lehenago, behar diren neurriak hartzerik izan dezan hark, kai-barrenak esleitzeari eta jendaurrean iragartzeari dagokionez.

**11. artikulua.-** Istripuagatik, matxuragatik edo beste arrazoiren batengatik aurreikusten bada hogeita hamar minututik gorako atzerapenarekin sartuko direla autobusak geltokian, enpresek garaiz ohartarazi beharko diote geltokiko administrazioari. Era berean, edozein arrazoirengatik zerbitzuek atzerapena izango badute ateratzeko ordu ofizialean, gutxienez hamabost minutu lehenago eman beharko diote horren berri.

Bidaiari-aretoan horretarako jarriko den iragarki-taulan edo taula elektronikoa iragarriko ditu atzerapenak geltokiko administrazioak, edo megafonia-sistemaren bitartez.

**12. artikulua.-** Finkatutako irteera-orduan utzi beharko dute geltokia autobusek, geltokiko zerbitzuek baimena eman ondoren. Edozein arrazoirengatik autobusa ezin bada behar den orduan atera, geltokiko langileei jakinarazi beharko die gidariak; haiek emango dizkiote jarraibideak, eta albait lehen —nolanahi ere, programatutako irteera-ordutik 30 minutu igaro aurretik— erabiltzaileei jakinaraziko, aurreko artikuluen ildotik.

Puntako orduetan, jai-bezperetan, bertako jaietan edo antzekoetan bidaia bereko ibilgailuen kopurua handituz gero, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote geltokiko administrazioari garraio-zerbitzuen emakidadun diren enpresek, behar diren neurriak har ditzan.

**13. artikulua.-** Garraio-zerbitzuen emakidadun diren enpresak izango dira beren ibilgailuek geltokian eragiten dituzten kalteen erantzule, ondorio guztietarako.

Pertsonei eta gauzei —geltokikoak izan al ez— eragiten zaizkien kalteak hartuko ditu bere baitan erantzukizun horrek, salbu eta autobus geltokia ustiatzen duen udal zerbitzuari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik gertatzen badira.

### III. KAPITULUA

#### ***Bidaiariak, ekipajeak eta enkarguak***

**14. artikulua.-** Saltokian, horretarako dituzten leihatiletan salduko dizkiete bidaia-tituluak bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publikoen emakidadun diren enpresek erabiltzaileei. Nolanahi ere, salmenta-makina automatikoetan ere saldu ahal izango dituzte bidaia-tituluak —aldez aurretik, horretarako espazioaren erabilera ordaindu beharko dio garraio-enpresak geltokiari—, baita ibilgailuetan bertan, leihatilez bestelako lokaletan nahiz interneten bitartez ere —geltokiko administrazioaren berariazko baimen idatzia eduki beharko dute horretarako—. Orobat erabaki ahal izango dute emakidadunek, beren borondatez, geltokian bidaia-tituluen salmenta batera edo haietako edozeinek guztienak saltzeko moduak —geltokiko administrazioak baimendu beharko du hori aldez aurretik—.

Bidaia abiatu baino gutxienez 30 minutu lehenago ekin beharko zaio berehala erabiltzeko diren bidaia-tituluen salmentari, eta ezingo da bertan behera utzi 10 minutu falta izan arte. Edonola ere, ibilgailuaren —edo zerbitzua batera egiten duten ibilgailuen— leku erabilgarrien gutxienez % 20 erreserbatu beharko dira salmenta-modu horretarako.

**15. artikulua.-** Jendaurrean jarrita egon beharko dute, ongi ikusteko lekuan, bidaia-tituluen salmenta-orduen iragarkiak, eta tarifak, ibilbideak, egutegiak eta ordutegiak jendaurrean jarrita edukitzeari dagokionez, berriz, enpresa emakidadunek zorrozki bete beharko dute Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onartu zeneko Eusko Jaurlaritzaren 51/2012 Dekretuaren 32.2 artikulua.

Geltokiko administrazioa arduratuko da ibilgailuen irteera-nasaren zenbakia jakinarazteaz, bai iragarki-taulan edo taula elektronikotan, bai megafonia zerbitzuaren bitartez —ahal dela zerbitzu bakoitzak ohiko nasa izango du, erabiltzaileei errazago gerta dakien aurkitzea—.

Geltokiko administrazioak erabakiko du —indarrean dagoen araudia betez— nolakoak izan behar duten iragarki horiek, eta bere nahierara aukeratuko horien eredu eta diseinuak, erabiltzaileek informazioa ongi ikusi eta entzungo dutela bermatzen duelarik.

**16. artikulua.-** Bidaiari ekin aurretik, bidaiari orok txartela ordaindu beharko du. Beti ere, garraio-enpresaren izenaz eta IFZaz gain, honako hauek ageri beharko dira txartelean: jatorria eta helmuga, bidaiaren data, prezioa eta bertan bidaiarien nahitaezko aseguruia eta Gasteizko autobus geltokiko tarifak sartuta daudela dioen oharra.

**17. artikulua.-** Geltokiaren erabiltzaileek oro, eta, bereziki, bidaiatzekotan direnek, gizalegez jokatu beharko dute bertan, eta, une oro, geltokiko langileek ematen dizkieten jarraibideak bete. Berariaz egongo da debekatuta:

- Erretzea, geltoki osoan, kai-barrenak barne.
- Autobusentzako bidean sartzea edo hartan barrena zirkulatzea, esan nahi baita geltoki barruko joan-etorrietarako horretarako baimendutako lekuak baliatu beharko direla, ibilgailuen mugimenduekin interferentziarik ez sortzeko.

- Baimendu gabeko lekuetara sartzea.
- Irteera nagusiak nahiz larrialdikoak oztopatzea, bertan eseriz nahiz luzatu edo berandutuz.
- Baimenik gabe saltzea.
- Bizikletaz eta, oro har, oinez ez den beste edozein garraio bidez zirkulatzea.

**18. artikulua.-** Bidaia-tituluak aldeztatik erostek ez du eskubiderik ematen ekipajea ohiko fakturazio-orduak baino lehenago fakturatzeko.

**19. artikulua.-** Ekipajeak eta enkarguak fakturatzeko zerbitzuak geltokiko administrazioak gobernatu eta administratuko ditu komunzki —berak izango baitu betebeharrak eta erantzukizuna—, eta aldiro indarrean daudenak izango dira tarifak, 6.16. ordenantza fiskalean —Gasteizko autobus geltokiko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa— jasota daudenak.

Nolanahi ere, geltokiko administrazioarekin berariaz hala hitzartzen badute, garraio-enpresa emakidadunek berek kudeatu ahal izango dute zerbitzua, onetsitako tarifiaren adierazitako prezioak kobratuz eta arlo horretan indarrean dagoen legedian finkatutako arauak aintzat harturik. Enpresa emakidadunek, denek nahiz bakarren batzuek, zuzenean kudeatzen badute fakturazio zerbitzua, horretarako behar diren espazioak egokituko ditu geltokiko administrazioak.

Zerbitzu horretatik bazter geratuko dira 100 kg. tik gorako pisua edo metro kubo batetik gorako bolumena duten paketeak.

Bidaiari berak hainbat esku-fardel uzten baditu batera, multzo bat egin ahal da guztiekin —behar bezala lotu eta identifikatuko dira, eta multzoa osatzen duten fardelen kopurua interesdunari emango zaion orrikan idatziko—, eta dagokion tarifa sortuko du bakoitzak.

Fakturaziorako egutegia nahiz ordutegia ezarri ahal izango ditu geltokiko administrazioak. Nolanahi ere, irteeretan, ekipajeak ibilgailura eramateko behar den denbora aintzat harturik, fakturatzeko denbora-muga bat finkatu ahal izango da, ateratzeko orduan atzerapenik ez eragiteko.

**20. artikulua.-** Fakturazioa kudeatzen duenak eraman beharko ditu fakturatutako ekipajea eta enkarguak lokaletik ibilgailuetara eta alderantziz, salbu eta kontrakoa hitzartu bada. Aldiz, garraiolariak kargatu beharko dituzte ibilgailuetan, baita deskargatu ere.

Garraio-enpresako langileek kargatu, deskargatu eta atonduko dituzte ekipajeak ibilgailuetan, zeregin horien ardura beren gain hartuta. Horretatik salbu geratuko dira bidaiariak aldean daramatzaten esku-ekipajeak eta fardelak.

**21. artikulua.-** Ekipajearen frankizia izaera pertsonaleko eskubidea izaki, segurtasun arrazoiengatik debekatuta egongo da bidaiariak besteren bidaia-tituluak aprobetxatzea beren ekipajeak doan garraiatzeko.

Fakturazioaz arduratzen diren langileek agintaritzaren agenteen laguntza eskatu ahal izango dute aurreko paragrafoan ezarritakoa betearazteko beharrezkotzat jotzen badute.

**22. artikulua.-** Geltokiko nahiz enpresa emakidadunetako langileek inolaz ere ezingo dituzte enbaleak askatu, ezta ekipajeen estalkiak ireki ere, baina bai horiek onartzeari uko egin, baldin eta formagatik, kanpoko zaragatik, pisuagatik, usainagatik edo beste edozein zantzurengatik garraiatu ezin diren fardel edo ekipajeak direla sumatzen badute.

Geltokiko nahiz enpresako langileek —aurreko paragrafoan adierazitakoaren ildotik— ekipajeak onartzeari uko egiten diotelarik bidaiariak ez badira konforme geratzen, agintaritzaren agenteek ebatziko dute auzia,

haiek kanpoaldetik aztertuz.

Funtzionario horiek ere ekipajeak onartzeari uko egin behar zaiola erabaki arren haien jabe edo arduradunak ez badira konforme geratzen, artean ere eskubidea izango dute ekipajeak fakturatu eta frankizia baliatzeko baldin eta, berek irekitzen dituztelarik, barruan legez ekipajetzat jo daitezkeen gauzak besterik ez dutela erakusten badute.

Ekipajeak, maletak eta fardelak entregatu ziren egoeran itzultzera baino ez da behartuta egongo geltokia, eta ez du erantzukizunik izango bere iritziz behar bezala itxi gabe daudenen edukiaren gainean, eta behar bezala itxita fakturatutako kasuan, berriz, jabeari itzultzeko orduan irekita ageri badira bakarrik izango du erantzukizunik. Fardela irekitzat joko bada, hala jaso beharko da hura uzten denean.

**23. artikulua.-** Indarrean dagoen tarifa kobratuko da fakturazioko egonaldiaren egun gehigarri bakoitzeko, ekipaje, maleta edo fardeleko.

Ekipajeak eskatzen duen bidaiariaren izena idatzia badu, edo haren izenean bidali bada, aski izango da, eman dakion, hark —bere burua identifikatu ondoren— jaso izanaren agiria izenpetzea.

Ekipajea edo fakturatu edo utzi izanaren frogagiria galtzen duenak horretarako eskubidea erabat justifikatzen duelarik bakarrik erretiratu ahal izango du hura, behar izanez gero giltza erakutsi beharko baitu, eta zehatz-mehatz eta modu erabatekoan adierazi haren kanpoko itxura eta barruan dituen gauzen batzuk.

Justifikazio horrez gain —bidaiariaren kontura izango dira gastuak, izanez gero—, berme-agiri bat bete beharko du, delako ekipajea eman zaiola egiaztatuko duena. Sinatzen ez badaki, geltokian ezagun diren bi pertsonen inguruan dute haren lekuan.

**24. artikulua.-** Kontsigna ez automatikoko utzitakoak erretiratzeko epea gehienez 48 ordukoa izango da, eta, hala egin ezean, dagokion tarifa ordaindu beharko da atzerapen-egun bakoitzeko.

**25. artikulua.-** Jabeek ibilgailuetan edo geltokiko lokal eta bulegoetan galdu edo uzten dituzten ekipaje, enkargu eta gauzei dagokienez, baita kontsigna automatikoetan finkatutako gehieneko denbora gainditzen denean ere, une horretan indarrean dagoen legedia aplikatuko da.

**26. artikulua.-** Enkarguak onartzeko, ekipajeei zegokienez araututakoa aintzat hartuko da.

#### IV. KAPITULUA

##### ***Kontsigna-zerbitzuak***

**27. artikulua.-** Geltokiko administrazioak arautu eta administratuko ditu kontsigna edo gordailu zerbitzuak. Aldiz, Gasteizko Udalak izango du eskumena kontsigna eskuz ala modu automatikoko eskaintzen den erabakitzeko, baita zerbitzu hori kontratatu edo azpikontratatzeko ere.

**28. artikulua.-** Aldean daramatzen ekipajeak edo esku-fardelak kontsignan utzi nahi dituenak kontsigna automatikoetan egin ahal izango du, horretarako ordutegiaren barruan.

**29. artikulua.-** Kontsigna automatikoko giltza galtzen duenak horretarako eskubidea erabat justifikatzen duelarik bakarrik erretiratu ahal izango du ekipajea edo fardela, behar izanez gero haien giltzak erakutsi beharko baititu, eta zehatz-mehatz eta modu erabatekoan adierazi haien kanpoko itxura eta barruan dituzten gauzen batzuk.

Justifikazioaz gain —bere kontura izango dira horren gastuak, izanez gero—, berme-agiri bat bete beharko du, delako ekipajea eman zaiola egiaztatuko duena. Sinatzen ez badaki, geltokian ezagun diren bi pertsonak egingo dute haren lekuan. Baldin eta eskatzen duenaren izena idatzia badu ekipajeak, aski izango da hark bere burua identifikatzea eta Merkataritza Kodearen 353. artikuluko azken paragrafoan aipatzen den agiria —hartu izana— sinatzea, eman dakion.

**30. artikulua.-** Kontsigna giltzarekin irekitzen duelarik berreskuratuko ditu fardelak horiek bertan utzi dituenak, ez baitzaio besterik galdatuko horretarako ez bada zaintzagatik sortutako diru-kopurua ordain dezala, indarrean dagoen tarifaren arabera. Ekipajeak eta fardelak kontsignan uzteko ez da alde zuzenetik edukia aitortu beharko.

**31. artikulua.-** Ez dira onartuko gordailuan balio handiko gauzak nahiz beren baitan dirua, balioak, artelanak edo beste dituzten fardelak. Era berean, gordailutik bazter geratuko dira gai sukoi, leherkor edo arriskutsuak, zirkulatu edo erabiltzea debekatuta dagoen objektuak, armak eta geltokiko arduradunen iritziz bertan gordetzeko behar diren segurtasun-baldintzak betetzen ez dituztenak.

**32. artikulua.-** Fardel osoak edo horien edukia desagertzeak Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamenduaren 3. artikuluan adierazten den kalte-ordaina ordaintzea ekarriko du berekin, Lehorreko garraioak antolatzeari buruzko Legearen 23. artikuluaaren ildotik. Ez da joko desagertzeak fardelak kontsigna bertako giltzarekin irekiz erretiratzea, ezta haiek utzi zituenak ez baina beste norbaitek egiten badu ere.

**33. artikulua.-** Kontsigna-zerbitzuaren ustiapena besteri lagaz gero, kapitulu honetako arauen aplikazioa bere gain hartu beharko du kudeatzaileak, baita legez onetsitako tarifak ere.

## V. KAPITULUA

### ***Tarifak eta horien likidazioa***

**34. artikulua.-** Organo eskudunak arauzko eran aldiro onesten dituen eta Gasteizko autobus geltokiko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 6.16. ordenantza fiskalean jasotzen direnak izango dira autobus geltokiko zerbitzuen tarifak.

Geltokiko administrazioak hala proposatzen duelarik, hemen azaldutakoez bestelako zerbitzu eta ustiapenak onetsi ahal izango dira, eta dagozkien tarifak.

BEZaren edo unean-unean indarrean dagoen antzeko zergaren zenbatekoa gehitu beharko zaie tarifa guztiei, zerga arautzen duen legearen eta araudiaren ildotik.

**35. artikulua.-** Onetsitako tarifetako kontzeptu desberdinak aplikatzearen ondorio diren diru-kopuruak likidatzeko —geltokiko administrazioak nahiz garraio-enpresek beren aldetik kobratu dituztenak—, arau hauek bete beharko dira, aldeek besterik hitzartzen ez badute:

a) Geltokiak hileko fakturazioa egingo die bertako zerbitzuak erabiltzen dituzten garraio-enpresei, honako hauek zehaztuta:

- Autobusen sarrera eta irteeren tarifak. Baldin eta, 2. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik, hiri barruan geraleku baimenduak ezartzen badira, garraio-enpresek zerbitzu guztiengatik ordaindu beharko dituzte sarrera eta irteera tarifak, baita arrazoi komertzialengatik hasiera eta helmuga geraleku baimenduetakoren batean

dutenengatik edo abiapuntua edo helmuga geltokian ez dutenengatik ere.

- Leihatila eta lokalen alokairuen tarifak.
- Geltokiko zerbitzu orokorren tarifak, bidaiari bertan hasten edo bukatzen duen bidaiari bakoitzeko. Bidaiariaren likidazioa egin beharko du norberak, horretarako dauden lekuetan.

SARRERA: aparkatutakoan, terminal interaktiboetako batera jo beharko du autobus-gidariak, eta daramatzen bidaiariaren kopuruari, zerbitzu motari eta ibilbide motari buruzko informazioa sartu sisteman.

IRTEERA: atera aurretik, terminal interaktiboetako batera jo beharko du gidariak, ateratzean eramango dituen bidaiariaren kopurua sartzeko.

Batean nahiz bestean, indarrean dauden tarifetan aurreikusten diren distantzia-tarteen arabera bereizi beharko dira bidaiariak.

- Baldin eta, 2. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik, hiri barruan geraleku baimenduak ezartzen badira, geltokia erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak jasanarazi beharko dizkiete garraio-enpresek haietan igotzen edo jaisten diren bidaiariei, eta behartuta egongo dira horiek hileko likidazioan sartzera.

Horretarako, garraio-enpresak behartuta egongo dira fakturatu beharreko bidaiariaren kopurua argi eta garbi egiaztatzen duten agiriak edo euskarri informatikoak hileroko geltokiari ematera, orobat adierazten dituztelarik eguna, zerbitzu-ordua, jatorria, helmuga, bidaiariaren kilometroak eta autobusaren matrikula.

- Geltokiko zerbitzuengatik egindako fakturazioen tarifak.

Garraio-enpresak bere aldetik autolikidaziorik egin ezean, geltokiko administrazioak bidaiariaren zenbatespenaren arabera egin ahal izango du likidazioa.

Erabiltzaileak geltokiko zerbitzuak erabiltzeagatik zergapetzen dituzten tarifak eta helmuga Gasteizko autobus geltokia duten fakturazio eta enkarguen gaineko zenbatekoa garraio-enpresek jasotzen dituztenez, ordezko kobrantza gisa jaso ere, tratamendu hori eman beharko zaie ondorio guztietarako, esan nahi baita geltokiaren jabetzako funts gisa agertu beharko dutela enpresen balantzeetan; alegia, hirugarrenek enpresa horien kontra bideratzen dituzten egintzek eta haien kontrako konkurtso-prozesuek eragin ezin dieten funts gisa.

Ondorio horietarako, jatorria edo helmuga Gasteizko autobus geltokian nahiz udalerrian baimendutako geralekuetan duten bidaiari-tituluetan, horiek edonolakoak izanik ere, autobus geltokia erabiltzeagatik prezioak sartuta daudela argi adierazten den egiaztatu ahal izango dute autobus geltokiak izendatutako langileek.

Behar diren laginketak egin ahal izango ditu geltokiko administrazioak, bai eskuz, bai modu automatizatuan, gaur egun pertsonak zenbartzeko erabiltzen diren metodoetako edozein baliaturik, bideo-zaintza barne. Era berean, jatorria edo helmuga Gasteizko autobus geltokian nahiz udalerrian baimendutako geralekuetan duten bidaiari-tituluen salmentaren kontu-ikuskapena egin dadila xedatu ahal izango du geltokiak, garraio-enpresa edozein izanik ere, eta hori egiteko beharrezko diren agiriak, euskarriak eta lanak oro eman beharko ditu hark.

Horiek ez badatoz bat garraio-enpresaren likidazioekin, edo aurreko paragrafoan aurreikusitako kontu-ikuskapena ahalbidetu ezean, 35. b) artikulua arabera jokatu da.

Ordaintzeko aldiei eta horiek ez betetzeari dagokionez, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean



xedatutakoa aplikatuko da.

Autobus geltokia erabiltzeko eskubidea izatekotan, jaulkitzen zaizkien likidazioak garaiz ordainduta eduki beharko dituzte garraio-enpresek.

b) Garraio-enpresaren likidazioak ez badatoz bat autobus geltokiak egindako zenbaketa eta kontu-ikuskapenekin, honela jokatuko da:

1. Aldatu egingo da likidazioa, zenbaketako datuak aintzat harturik.
2. 200 euroko zenbatekoa —eta dagokion BEZ— fakturatuko zaio garraio-enpresari, zenbaketak eta likidazio-zuzenketak sortutako gastu gisa.
3. Salaketa tramitatutako da garraioaren alorrean eskumena duen agintaritzaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioaren 4/2004 Legearen 54. artikuluko 13. puntuan aurreikusten den arau-haustea izaki:

“Enpresak nahitaez eraman behar duen kontularitzako, estatistikako edo kontroleko edozein agiri faltsifikatzea edo agiri horietako datuak faltsifikatzea.”

Hori guztia ordezeko kobrantzez bidegabeki jabetzearen ondorioz garraio-enpresari eta bertako langileei legezkiekeen erantzukizun penalez aparte izango da.

## VI. KAPITULUA

### ***Langileak eta zigorrak***

**36. artikulua.-** Gasteizko Udalak finkatuko du geltokia ustiatzeko zerbitzurako langileria orokorra, bertan sortzen diren beharrei egokiro erantzuteko modua izan dadin.

**37. artikulua.-** Autobus Geltokiaren Zerbitzuko burua izango da bertako agintari betearazle gorena, eta behar diren ahalmenak oro izango ditu establezimenduaren funtzionamendu egokiari dagozkionetarako. Horrenbestez, bera izango da bertan suertatzen diren gorabeheren arduradun. Geltokiko zerbitzuen jarduera arrunterako behar diren langileak oro geltokiko buruaren mende egongo dira, eta horren zeregin eta betebeharrak izango dira honako hauek, zerrenda erabatekoa ez bada ere:

Geltokiko zerbitzuen zuzendaritza arrunta.

Geltoki barruan ibilgailuen zirkulazioa antolatzea.

Ibilgailuetako bakoitzari irteera-seinalea eman edo ukatzea, linea edo ibilbide bakoitzerako aurreikusitako orduan.

Ibilgailuak geltokitik ateratzean nahiz bertara sartzean egokitzen diren ordutegi-atzerapenen berri garraio-administrazio eskudunari ematea, parteentz bitartez, zerk eragin dituen adieraziz, eta, era berean, bertan behera utzitako bidaiari eta bestelako gorabeheren berri.

Geltoki barruko zirkulazioa dela eta —baita ekipajeak eta enkarguak kargatu eta deskargatzearen inguruan ere— ematen zaizkien aginduak urratuz enpresek egiten dituzten hutsegite guztien berri garraio-administrazio eskudunari ematea.

Araudi honetan, garraioei buruzko legedian eta bide zirkulazioko arauetan jasotzen dena bete

dadila zaintzea, bere gain hartua duen ustiapen zerbitzuari aplikatzekoak diren neurrian. Araudi honetan aurreikusi gabekorik egokituz gero, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren ildotik ebatziko du administrazio eskudunak.

Zerbitzu erregular arrunt eta iraunkorrak eskaintzen ez dituzten autobusak aparkatzeko baimena ematea, araudi honen 3. artikuluan ezarritako lehentasunak errespetatuz.

**38. artikulua.-** Funtzio Publikoaren Sailak langileak kontratatzeko finkatuak dituen prozedura eta protokoloak baliatuz beteko da Autobus Geltokiaren Zerbitzuko zerbitzuburu lanpostua.

**39. artikulua.-** Erregistro-liburuak eta bere ardurapean uzten den gainerako dokumentazioa eraman beharko du Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak, eta kasuan kasu eskumena duen agintaritzari helarazi, ohiko bidetik, enpresek nahiz erabiltzaileek egiten dituzten arau-hauste, irregulartasun eta hutsegiteen salaketa-parteak. Garraio Ikuskaritzaren eskumenekoak diren salaketak hartako funtzionarioei helarazi beharko dizkie, bost eguneko epean, gertakarien berri duen egunaren biharamunetik.

**40. artikulua.-** Geltokiko zerbitzu-langileek eraman beharreko uniformeak eta bereizgarriak, kasuan kasu, geltokiko administrazioak erabakitzen duenaren arabera egingo dira.

**41. artikulua.-** Geltokiko langileek, geltokia baliatzen duten enpresek eta, oro har, erabiltzaileek egiten dituzten hutsegiteek indarrean dauden arauetan aurreikusten diren eta kasuan kasu aplikatzekoak diren zigorrak ekarriko dituzte berekin, haietan ezarritako prozeduraren ildotik. Garraioen alorrean, Eusko Jaurlaritzaren Errepideko Bidaiari Garraioaren 4/2004 Legearen XII. kapituluaren jasota dagoen 'errepideko garraioen eta haien jarduera lagungarri eta osagarrien zehapen eta kontrol araubidea' izango da aplikagarri.

**42. artikulua.-** Geltokiko langileek egiten dituzten lanaren alorreko hutsegiteak, berriz, unean uneko udal organo eskudunak izapidetu eta ebatziko ditu, indarrean dauden arauak aintzat harturik.

**43. artikulua.-** Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak izango du eskumena lana bertako langileen artean banatzeko, langile bakoitzaren zereginen arabera.

## VII. KAPITULUA

### ***Bidaiarien eskubideak eta erreklamazioak.***

**44. artikulua.-** Bere gain hartuko du geltokiko administrazioak erabiltzaileei indarrean dagoen legediak aitortzen dizkien eskubideei buruzko informazio egokia eta erabatekoa helaraztearen ardura, Estatu kideek UE 181/2011 araudiaren 28. artikuluko 1. atalaren ildotik izendatutako erakundeetara jotzeko beharrezko diren datuak barne.

Behar bezala ohartarazi beharko da, geltokiko instalazioetan, badela bertan erreklamazio liburu bat, edo erreklamazio-orriak —administrazio eskudunak onetsitako eredua—, erabiltzaileen nahiz geltokian diharduten enpresen eskura.

Arloko legedian aurreikusitakoa izango da erreklamazioak egiteko modua.

Era berean, jendaurrean jarrita eduki beharko dira geltokian eskaintzen diren zerbitzuen tarifak

—garraioen alorreko administrazio eskudunek baimenduak—, eta Autobus Geltokiko Barne Araudia garraio-enpresen eta erabiltzaileen eskura.

## VIII. KAPITULUA

### ***Lokalak eta gainerako zerbitzuak okupatzea***

**45. artikulua.-** Garraiolari emakidadunek geltokian bidaia-tituluak saltzeko eta fakturatzeko espazioen kokalekuak eta neurriak autobus geltokiaren ustiapenaren kudeaketaren titular den administrazioak zehaztuko ditu, geltokia ustiatzen duen erakundeko zuzendaritzak proposamen-txostena egin ondoren —irizpide objektiboak aintzat harturik: trafiko ahalmena, zerbitzuaren antzintasuna eta abar—.

**46. artikulua.-** Berriaz garraioaren ustiapenari atxikita ez dauden geltokiko espazioetan, hau da, jarduera osagarrietarako direnetan, dagozkien kontratuetan baimentzen diren jarduerak baino ezingo dira gauzatu, eta inolaz ere ezingo dira baliatu arropak edo fardelak gordetzeko, dohainik bada ere. Edozertarako delarik ere, eta, bereziki, geltokiaren ustiapenak berekin dakartzan diru-sarreraren gaineko kontribuzioari dagozkionetarako, kontratu guztien eta horiek eguneratzen dituzten agirien kopiak eskatu ahal izango dizkio Arabako Foru Aldundiak hura ustiatzen duen erakundeari.

Gorago aipatu diren espazioak alokatzen dituzten pertsona eta erakundeak behartuta egongo dira araudi honetan jasotzen diren arauak betetzera, beren jarduerari dagozkienetan, baita geltokiko administrazioak araudi honen ildotik ematen dizkien aginduak betetzera ere.

## IX. KAPITULUA

### ***Geltokia ikuskatzea***

**47. artikulua.-** Eusko Jaurlaritzaren Errepideko Bidaiari Garraioaren 4/2004 Legearen 4. artikuluan daude jasota arlo horretako eskumenak: Eusko Jaurlaritzari dagokio errepideko bidaiari-garraioaren alorreko goi-ikuskaritza. Lege beraren IX. kapituluan aurreikusten diren eskumenak — Gasteizko autobus geltokiari dagokionez— eta hiriarteko garraioaren zuzeneko ikuskapena Arabako Foru Aldundiko Garraio Zuzendaritza Nagusiari dagozkio, berak tramitatuko baititu, eta ebatziko, Araba lurralde historikoan egiten diren arau-hausteen ondorioz abiarazten diren dossier zigortzaileak, bere organoen bitartez, geltokiaren ustiapenean Gasteizko Udalarari dagozkion eskumenak gorabehera.

## X. KAPITULUA

### ***Galdutako gauzak***

**48. artikulua.-** Galdutako gauzak informazio-mahaian jasoko dira, eta bereizi egingo dira, alde batetik "gauza baliotsuak" eta bestetik "jantziak eta beste".

Baldin eta hamabost egunen buruan jabeek erreklamatzeko ez badituzte, Udaltzaingoaren bulegoetara bidaliko dira "gauza baliotsuak", eta, hortik aurrera, bertan arduratuko dira jabe legitimoen aurrean behar diren zuzemenak egiteaz.

"Jantziak eta beste" hogeita hamar egunez gordeko dira instalazioan bertan, eta, epe hori igarotzen delarik, jabeek erreklamatu ez badituzte, ongintza edo laguntza erakunderen bati emango zaizkio, edo materialak birziklatzeko lekuetara eramango.

## XI. KAPITULUA

### ***Lurpeko parkingaren erabilera***

**49. artikulua.** Hauek dira lurpeko parkingaren erabilera-arauak:

- Ordaindu ondoren, 15 minutuko epea egongo da ibilgailua ateratzeko.
- Bi modutan ordaindu daiteke: eskudirutan edo kreditu-txartelaz, parkingaren kutxazain automatikoak baliatuz.
- Txartela galduz gero, erabiltzaileak kutxazain automatikoetako batera jo beharko du; bertan galdutako txartelen aukeraren bitartez beste txartel bat eskuratu beharko du, eta aparkaldiaren zenbatekoa ordaindu. Matrikularen bitartez ezin bada aparkaldiaren iraupena zehaztu, erabiltzaileak eguneko gehiengo ordaindu beharko du.
- Parkingeko erabiltzaile bakoitzak deskontu-txartel bakarria erabili ahal izango du txandakako egonaldia ordaintzerakoan.
- Erreklamazio orriak daude argibideetarako gunean, geltokiko beheko solairuan.
- Errespetatu egin behar dira mugikortasun murriztuko pertsonentzat gordetako plazak.
- "Erreserbatua" ("RESERVADO") errotulua duten plazak soilik pertsona abonatu eta jabeek erabiltzekoak dira, ez beste inork.
- Istripu edo ezbeharririk gertatuz gero, autobus geltokiko langileei jakinarazi beharko zaie, kutxazain automatikoetako interfonoen bitartez.
- Gasteizko Udalak parkingeko autoak erretiratzeko ahalmena izango du, baldin eta delako ibilgailua 6 hilabetetik gora, etengabe eta leku berean aparkatuta badago, hau da, itxura guztien arabera abandonatuta dagoela pentsa daitekeenean, dela egoeragatik, dela leku batetik bestera berez mugitzea ezinezko egiten duten kalteak dituelako, dela matrikula-xaflarik ez duelako, dela jabeak hura erabiltzeko batera interesik ez duela pentsarazi dezakeen beste edozein kanpo-zantzu duelako.
- Edozein pertsona fisiko edo juridikoren aurrean, Gasteizko Udalak ibilgailua atxikitzeko eskubidea izango du, aparkatuta egon den denboraren prezioaren ordainketaren berme gisa.

### **XEDAPEN OSAGARRIAK**

Araudi honetan adierazten diren epeak oro egun baliodunetan zenbatuko dira, hau da, jaiegunak bazter utzita.

Araudi honen osagarri, edo berau garatzeko, zerbitzu guztien antolakuntza eta funtzionamendu hoberako komenigarritzat jotzen diren xedapenak emango dira geltokiko administrazioaren zirkularren bitartez, aldezturik Gasteizko Udalak baimendu beharko baditu ere.

Araudi honetan aurreikusitako gabekoetan, arloan indarrean dauden xedapenak aintzat hartuko dira.

Zinegotzi ordezkariak ebatziko ditu araudi hau aplikatzean sortzen diren zalantzak. Nolanahi ere, behar

diren kontsultak egingo zaizkio Arabako Foru Aldundiaren Garraio Zuzendaritza Nagusiari.

Garraio-lineen emakidadun diren enpresek elkarri zuzentzen dizkieten barneko idazki, eskutitz eta oharrak eman eman direla egiaztatu nahi delarik, bina ale egin beharko dira; jasotzaileak kopia sinatu eta zigilatuko beharko du, eta dena delako agiria jaso zeneko data idatzi.

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean araudi hau.